gei, eta orain onesten den Lurzatikatzeko Egitasmoaren arabera kendu behar diren landaketa, lan, eraikuntza eta hobekuntzei dagokienean.

Hirugarrenik.—Eskritura publikoa eskuestea edo administrazio-idazkia egitea, udal ekintzek dauzkaten betebehar eta eskakizun guztiekin, eta Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudiko 113. artikuluak xedatzen duen edukina duelarik, erabakia administrazio bidean irmo denean.

Laugarrenik.—Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari ofizialean, udaletxeko ediktu oholtzan eta herrian irakurri ohi den lurralde historikoko egunkari batean argitaratzea eta banan-banan jakinaraztea interesatuei eta espedientean agertzen direnei. Halaber, ebazpen honen kopia bat helaraziko zaio Probintziako Hirigintza batzordeari, Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudiko 111. artikuluak agindu bezala.

Bosgarrenik.—Hirigintzari buruzko legeekin bat etorriz, nahitaezko eta dohaineko lagapeneko lurrak eta esandako konpentsazioa, diruz, Udalaren lurzoru-ondarera sartu, jabari osoz eta kargarik gabe, edo Plan Orokorrak aurreikusten dituen erabilerei lotzea.

Portugalete, 1999ko abuztuaren 30ean.—Alkatea, Miguel Angel Cabieces García

(6.153 zk.)

•

cargas que deban extinguirse y de las plantaciones, obras, edificaciones y mejoras que deban destruirse de acuerdo con el Proyecto de Reparcelación aprobado.

Tercero.—Otorgar escritura pública o extender documento urbanístico administrativo, con las solemnidades y requisitos propios de los actos municipales y el contenido previsto por el artículo 113 del Reglamento de Gestión Urbanística y demás disposiciones concordantes, una vez que el acuerdo haya adquirido firmeza en vía administrativa.

Cuarto.—Publicar el presente acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», en el tablón de edictos municipal y en un diario de la provincia de difusión corriente en la localidad y notificarlo individualmente a los interesados y a quienes hayan comparecido en el expediente, con remisión de una copia de la presente Resolución a la Comisión Provincial de Urbanismo, en los términos previstos en el artículo 111 del Reglamento de Gestión Urbanística.

Quinto.—Proceder a la incorporación, en pleno dominio y libre de cargas, al patrimonio municipal del suelo o a su afectación a los usos previstos por el Plan, de los terrenos de cesión obligatoria y gratuita, conforme a la legislación urbanística.

Portugalete, a 30 de agosto de 1999.—El Alcalde, Miguel Angel Cabieces García

(Núm. 6.153)

•

## Leioako Udala

IRAGARKIA

Udaleko Osoko Bilkurak 1999ko ekainaren 10ean egindako bileran, «Euskararen Erakundea» erakunde autonomoaren estatutuak aldatzea onetsi zen behin-behinean. Ondoren, uztailaren 12a eta abuztuaren 20a bitartean, jendaurrean azaldu zen eta denbora tarte horretan ez zenez erreklamaziorik egin, behin betiko onetsi da.

Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. artikuluari lotutako 70.2 artikuluan ezarri dena betetzeko, Euskararen Erakundea erakunde autonomoaren estatutuak argitaratuko dira oso-osorik. Estatutuak iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu beharreko 15 astegunen buruan jarriko dira indarrean.

### EUSKARAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

**IZENA, IZAERA ETA XEDEA**

**1. artikulua**

Leioako Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85. artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorriz, Euskararen Erakunde Autonomoa eratu du.

**2. artikulua**

1. Leioako Udalaren Euskararen Erakunde Autonomoak bere nortasun juridikoa izango du eta bere eskumeneko eremuan jarduteko gaitasun juridiko osoa.

2. Erakunde Autonomoaren izena «Euskararen Erakundea» izango da bi hizkuntza ofizialetan.

**3. artikulua**

Leioako Udalaren Euskararen Erakunde Autonomoaren xedea ondokoa izango da: Leioako Udalean euskara suspertu, sustatu eta normalizatzea, eta zehazki:

a) Helduen euskalduntze eta alfabetatze Zentrua zuzendu, antolatu eta kudeatzea.

b) Udalerriko zenbait eremutan euskara normalizatzea lortzeko egitarauak eta jarduerak abian jartzea.

## Ayuntamiento de Leioa

ANUNCIO

Por resolución del Ayuntamiento Pleno celebrado el día 10 de junio de 1999, se aprobó inicialmente la modificación de los Estatutos del Organismo autónomo «Euskararen Erakundea», que ha resultado definitivamente aprobada al no haberse presentado reclamaciones en el período de exposición pública, comprendido entre el 12 de julio y el 20 de agosto de 1999.

Y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2, en relación con el articulo 65, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica a continuación el texto íntegro de los Estatutos del Organismo autónomo Euskararen Erakundea, que entrarán en vigor transcurridos 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de esta publicación.

### ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTONOMO EUSKARAREN ERAKUNDEA

CAPITULO I

**DENOMINACION, NATURALEZA Y OBJETO**

**Artículo 1**

El Ayuntamiento de Leioa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 85 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, constituye el Organismo Autónomo Euskararen Erakundea.

**Artículo 2**

1. El Organismo autónomo local Euskararen Erakundea de Leioa tendrá personalidad jurídica propia y plena capacidad jurídica de obrar en el ámbito de su competencia.

2. El Organismo Autónomo se denomina en las dos lenguas oficiales «Euskararen Erakundea».

**Artículo 3**

El Organismo Autónomo Local Euskararen Erakundea de Leioa tiene por objeto el fomento, la promoción y normalización del euskera en el municipio de Leioa, y en concreto:

a) La dirección, organización y gestión del Centro de Euskaldunización y Alfabetización de Adultos.

b) La puesta en marcha de programas y actividades para conseguir la normalización del euskera en distintos ámbitos del municipio.

c) Euskara sustatzea xede duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak sortutako «Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde» Autonomoarekin (HABE) egoki diren hitzarmenak sinatuz lankide jardutea.

d) Euskara praktikatu edo ikastea bultzatzeko jarduerak antolatzea.

**4. artikulua**

Leioako Euskararen Erakunde Autonomoaren egoitza Udaletxea izango da (Iparragirre etorbidea, 78).

II. KAPITULUA

**GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK**

**5. artikulua**

Erakunde Autonomoaren gobernu eta administrazio organoak Batza Artezkaria eta Lehendakaria izango dira.

**6. artikulua**

1. Ondokoa izango da Batza Artezkariaren osaera:

— Berenezko Lehendakaria: Leioako Alkatea.

— Benetako Lehendakaria: Berenezko Lehendakariak Batzaren mahaikideen artean horretarako beren beregi izendatzen duena.

— Mahaikideak: Udal Korporazioa osatzen duen talde politiko bakoitzeko kide bat, ordezkatzen duen taldeak izendatua; kide horrek boto haztatua izango du, beraren talde politikoak Udalean dituen ordezkarien kopuruaren baliokidea.

Halaber, Batza Artezkariaren kide izango dira, hizpidez baina hautespiderik gabe, HABEren ordezkari bat, euskara teknikaria eta Udal Euskaltegiaren zuzendaria, eta azken honek jardungo du idazkari. Langileen eta ikasleen ordezkariek Batza Artezkariak egiten dituen bileretara joan ahal izango dute beren arazoak azaltzeko; horiek entzun ondorik, eztabaidatzeari ekingo zaio.

2. Batzaren bilkuretara berenezko Lehendakaria joanez gero, benetako Lehendakariak mahaikide jardungo du.

3. Berenezko Lehendakariak zein benetako Lehendakariak, Erakunde Autonomoaren Lehendakari gisa jarduten dutenetan, Lehendakariari dagokion izendura bakarraz arituko dira.

**7. artikulua**

Batzaren Lehendakariak eta mahaikideek beren karguei eutsiko diete Alkate edo Zinegotzi diren artean, eta azken kasu honetan, baldin eta zinegotziok ordezkatzen duten talde politikoak mahaikide izateko izendapena ezeztatzen ez badu.

**8. artikulua**

Uko, gaixotasun, heriotza, uzte edo beste edozein inguruabarrengatik gertatzen diren lanpostutsak berauek eragin dituztenak izendatu dituen talde politikoak ezarritako zinegotziek beteko dituzte, eta Udalaren Osoko Bilkurari jakinarazi beharko zaio izendatzen den pertsonaren izena.

**9. artikulua**

Lehendakari eta Mahaikide karguak ohorezko eta dohainekoak dira; hala ere, karguon eskurantzen eremuan egiten diren kudeaketek eragindako gastuengatiko ordainsariak edo kalteordainak jasotzeko eskubidea izango dute, Erakunde Autonomoaren kontura edo berarentzat.

III. KAPITULUA

**GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOEN ERATXIKIPENAK**

**10. artikulua**

Batza Artezkariak ondoko eratxikipen hauek izango ditu:

c) La colaboración con otros organismos o entidades públicas o privadas que tengan por finalidad la promoción del euskera y, en particular, con el Organismo Autónomo creado por el Gobierno Vasco con la denominación de «Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Sortaraztezkoa» (HABE), con el cual se suscribirán los oportunos convenios.

d) La organización de actividades para favorecer la práctica o el aprendizaje del euskera.

**Artículo 4**

La sede del Organismo Autónomo Euskararen Erakundea de Leioa se sitúa en el edificio municipal ubicado en la Avenida Iparragirre número 78.

CAPITULO II

**ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION**

**Artículo 5**

Los órganos de gobierno y administración del Organismo Autónomo serán la Junta Rectora y el Presidente.

**Artículo 6**

1. La Junta Rectora estará constituida de la siguiente manera:

— Presidente nato: el Alcalde de Leioa.

— Presidente efectivo: el así designado por el Presidente nato de entre los vocales de la Junta.

— Vocales: un miembro de cada grupo político de los que integran la Corporación Municipal, designado por el grupo al que representan, con voto ponderado, equivalente al número de representantes que su grupo tiene en el Ayuntamiento.

Serán también miembros de la Junta Rectora, con voz pero sin voto, un representante de HABE, el técnico de euskera y el director del Euskaltegi Municipal que desempeñará las funciones de secretario. Los representantes de los trabajadores y de los alumnos podrán asistir a las reuniones de la Junta Rectora para exponer sus problemas, que serán escuchados y posteriormente debatidos.

2. Cuando concurre a las sesiones de la Junta el Presidente nato, el Presidente efectivo pasará a actuar como vocal.

3. El Presidente nato o el Presidente efectivo, en cuanto actúen en calidad de Presidentes del Organismo Autónomo, lo harán bajo la denominación única de Presidente.

**Artículo 7**

El Presidente y los Vocales de la Junta permanercerán en sus cargos mientras perdure su calidad de Alcalde o Concejales y, en este último caso, en tanto su nombramiento como vocal no sea revocado por el grupo político al que representan.

**Artículo 8**

Las vacantes que se produzcan por la renuncia, enfermedad, fallecimiento, cese o cualquier otra circunstancia, serán cubiertas por el concejal que determine el grupo político que hubiera designado a quien produce la vacante, dándose cuenta al Pleno Municipal del nombre de la persona designada.

**Artículo 9**

Los cargos de Presidente y Vocales son honoríficos y gratuitos, aunque tendrán derecho a percibir dietas o indemnizaciones como consecuencia de los gastos derivados de gestiones realizadas, en el ámbito de sus atribuciones, por cuenta o en favor del Organismo Autónomo.

CAPITULO III

**ATRIBUCIONES DE LOS ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION**

**Artículo 10**

La Junta Rectora ostentará las siguientes atribuciones:

a) Euskalduntze eta Alfabetatze Zentruaren barne Araubideari buruzko Araudia onestea, bai eta, hala denean, bidezkotzat jotzen diren aldarazpenak ere egitea.

b) Euskaltegia dagoen eraikinean obrak egitea proposatzea, eta Udalari aurkeztea, hark onetsi eta higiezinaren erabilerari dagokion oro erabaki dezan.

c) Zerbitzua garatzeko behar diren kontratu guztien formalizazioa onestea, salbu eta, zenbatekoa dela-eta, kontratatzeko ahalmena Lehendakariari dagokionean, eta zehazki, HABErekin urtero egiten den hitzarmena sinatzea onestea.

d) Egiteko berezietarako ordezkaritzak eta eskuordetzak egilestea.

e) Urteko Aurrekontua edo aurrekontuaren azken balantzeak edo likidazio kontuak onestea, Udalak adierazten dituen jarraibideekin bat etorriz, hala denean, eta Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztea, honek behin betiko onets dezan.

f) Euskalduntze eta Alfabetatze Zentruaren irakaskuntzako jardueretarako irizpide nagusiak berrestea eta Zentruaren organo egokiek irizpide nagusion arabera ezartzen duten egitarau zehatzari buruzko txostenak jasotzea.

g) Aurrekontu-zainpeketen arabera, Erakunde Autonomoaren langileri plantila eta beronen ordainsariak onestea, eta egin behar diren kontratazioak edo kontratu luzamenduak ontzat ematea eta langileriaren hoben astun edo oso astunengatiko zehapenak erabakitzea.

h) Erakunde Autonomoaren interesak babesteko administrazio edo judizioko akzio oro egikaritzea.

i) Ikasturte bakoitzerako tasak edo prezio publikoak eta irakaskuntzako zerbitzuari buruzko zerga ordenantzari dagokion oro onestea, Udalaren Osoko Bilkurak berrets dezan.

j) Ondasunen inbentarioa eta berorren urteko zuzenketa onestea, Udalaren Osoko Bilkurak berrets dezan.

k) Gatazka orokorrak konpontzea eta ikasleei zehapenak ezartzea, Barne Araubideari buruzko Araudian ezarririk dagoenarekin bat etorriz.

l) Jardueren urteko memoria ontzat ematea.

m) Ikasleen onarpenari buruzko erabakiak hartzea, Barne Araubideari buruzko Araudian ezarririk dagoenaren arabera.

n) Langileek aurkezten duten urteko egutegi, ordutegi eta lan baldintza orokorren proposamena onestea.

ñ) Erakunde Autonomoaren Barne Araubideari buruzko Araudiaren eta Estatutuen aldarazpenak onestea.

o) Klaustroak proposaturik, Udal Euskaltegiaren Zuzendaria eta Irakaskuntzako Idazkaria aukeratzea.

p) Leioako udalerrian euskara normalizatzeko ekimenak proposatzea.

**11. artikulua**

Ondokoak dira Erakunde Autonomoaren Lehendakariari dagozkion eskumenak:

a) Erakunde Autonomoaren gobernua eta administrazioa zuzentzea.

b) Erakunde Autonomoaren ordezkaria izatea.

c) Batza Artezkariaren bilkurak deitu, eten eta bukatutzat ematea, eta horietan lehendakari jardutea.

d) Mantenimendu obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea, baldin eta horien zenbatekoak zerbitzuaren aurrekontuaren ehuneko hogeia gainditzen ez badu, behin langileri gastuak deskontatuz gero.

e) Eskumenen mugen barruan, gastuak xedatzea eta ordainketak agintzea.

f) Presa dagoenean, akzioak egikaritzea.

g) Langileriaren hoben arinak zehatzea.

a) Aprobar el Reglamento de Régimen Interior del Centro Académico de Euskaldunización y Alfabetización, así como, en su caso, las modificaciones que estime oportuno deban efectuarse.

b) Proponer la realización de obras que afecten al inmueble donde se asienta el Euskaltegi, y elevarlas al Ayuntamiento para su aprobación y decidir cuanto se refiere a la utilización del inmueble.

c) Aprobar la formalización de los contratos necesarios para el desenvolvimiento del servicio, salvo que, por su cuantía, esté atribuida al Presidente la facultad de contratar, y de manera específica aprobar la suscripción del convenio anual con HABE.

d) Otorgar representaciones y delegaciones para cometidos singulares.

e) Aprobar el presupuesto anual y los balances finales o cuentas de liquidación del presupuesto, de acuerdo con las instrucciones que, en su caso, hubiera señalado el Ayuntamiento, y someterlas al Pleno Municipal para su aprobación definitiva.

f) Ratificar los criterios generales de la actividad académica del Centro de Euskaldunización y Alfabetización y recibir informes de la programación concreta que, de acuerdo con tales criterios generales, hubieran establecido los correspondientes órganos del Centro.

g) Aprobar, de acuerdo con las consignaciones presupuestarias, la plantilla de personal del Organismo autónomo, así como sus retribuciones, y dar su visto bueno a cuantas contrataciones o prórrogas de contrato hayan de realizarse y acordar las sanciones por faltas graves o muy graves del personal.

h) El ejercicio de toda clase de acciones administrativas o judiciales para defender los intereses del Organismo autónomo.

i) Aprobar las tasas o precios públicos para cada curso académico, así como cuanto se refiera a la ordenanza fiscal del servicio académico para su ratificación en el Pleno Municipal.

j) Aprobar el inventario de bienes y su rectificación anual para su ratificación en el Pleno Municipal.

k) Resolver los conflictos generales e imponer, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento Interior, sanciones a los alumnos.

l) Dar el visto bueno a la Memoria anual de actividades.

m) Decidir sobre la admisión de alumnos con arreglo a lo establecido en el Reglamento de Régimen Interno.

n) Aprobar la propuesta de calendario anual, horario y condiciones generales de trabajo del personal presentado por los trabajadores.

ñ) Aprobar las modificaciones del Reglamento de Régimen interior y de los Estatutos del Organismo Autónomo.

o) Elegir a propuesta del Claustro al Director y al Secretario Académico del Euskaltegi Municipal.

p) Promover iniciativas para la normalización del euskera en el municipio del Leioa.

**Artículo 11**

Corresponden al Presidente del Organismo autónomo las atribuciones siguientes:

a) Dirigir el gobierno y la administración del Organismo autónomo.

b) Representar al Organismo autónomo.

c) Convocar, presidir, suspender y levantar las sesiones de la Junta Rectora.

d) La contratación de obras de mantenimiento, servicios y suministros cuando su cuantía no exceda del veinte por ciento del presupuesto del servicio, descontados los gastos de personal.

e) Disponer gastos dentro de los límites de sus atribuciones, y ordenar los pagos.

f) El ejercicio de acciones en caso de urgencia.

g) Sancionar las faltas leves del personal.

h) Erakunde Autonomoaren beste eskumen oro, baldin Batza Artezkariari eratxikirik ez badago.

IV. KAPITULUA

**BILKUREN ARAUBIDEA**

**12. artikulua**

1. Batza Artezkariak bilkura arruntak egingo ditu bi hilero behin.

2. Aparteko bilkurak egingo dira Lehendakariak bere ekimenez erabakitzen duenean edo gutxienez batzakideen laurden batek eskatuz gero.

3. Bilkurak Udal Euskaltegiaren egoitzan egingo dira, Lehendakariak deialdian bidezko kariagatik beste lekuren bat adierazten duenean izan ezik.

4. Lehendakariak egingo ditu bilkura arrunten deialdia eta eguneko aztergaien zerrenda, eta Batza Artezkariaren kideei baino ez zaizkie igorriko gutxienez egutegiko lau egun lehenago; aparteko bilkurak direnean, gutxienez 24 ordu lehenago deitu beharko dira.

5. Bilkura batzakideek eskaturik deitzen denean, ekimena izan dutenek proposatzen dituzten aztergaiak sartu beharko dira eguneko aztergaien zerrendan.

**13. artikulua**

1. Lehenengo deialdian bilkurak baliozkoak izateko, gutxienez boto haztatuen erdia gehi bat ordezkatzen duten kideak bildu beharko dira.

Baldin eta aurreko paragrafoari dagokion quoruma iristen ez bada, bigarren deialdia izango da lehenengo deialdirako ezarri ordutik hogeita hamar minututara, eta kasu horretan bilkura baliozkoa izateko gutxienez boto haztatuen herena ordezkatzen duten kideak bildu beharko dira.

2. Lehendakariak zuzendu eta antolatuko ditu eztabaidak bere erabakimen zuhurrez.

3. Batzartzen diren kideen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, boto haztatua dagoela kontuan hartuz, halako moldez non mahaikide bakoitzaren botoa berorrek ordezkatzen duen talde politikoak Udalean dituen korporaziokideen kopuruaren parekidea izango baita, salbu eta honako estatutu hauen 23. artikuluan jasotzen den balizko kasuan; Lehendakariak kalitatezko botoa izango du botoen berdinketak ebazteko.

4. Eguneko aztergaien zerrendan ez dauden aztergaiei buruzko erabakiak batzakideen gehiengo osoak aurretiaz presazkoa dela adierazten duenean soilik hartu ahal izango dira.

5. Artikulu honen 1. atalean aipatu den quoruma iristeko, eta 4. atalean aurreikusi den gehiengoari dagokionez, berenezko Lehendakaria ez da kontuan hartuko.

**14. artikulua**

1. Lehendakaria ez dagoenean, beronek eskuordetzat hartu duen batzakideak jardungo du bilkura buru; bilkurak baliozkoak izateko, Lehendakariak eta Idazkariak edo berauen ordezkoek egon beharko dute beti bileretan.

2. Batzak Erakunde Autonomoaren pertsonak edo kideak agertzeko eskatu edo baimendu ahal izango du, informazio edo aholkularitza ondoreetarako.

**15. artikulua**

1. Bilkura bakoitzaren akta egin beharko da, eta aktan ondokoak erasoko dira: bilkura egiten den tokia, eguna eta hasten eta amaitzen den ordua, batzarreratu diren batzakideen eta bilkurara joan ez diren mahaikideen izen-deiturak, lehenengo edo bigarren deialdia den, batzarreratu diren batzakideen iritzi laburtuak, iritziak beren beregi erasotzeko eskatu den, eta bilkuran egiten diren hautespenak eta hartzen diren ebazpenen zati xedatzailea.

h) Cualquier otra competencia del Organismo autónomo que no esté atribuida a la Junta Rectora.

CAPITULO IV

**REGIMEN DE SESIONES**

**Artículo 12**

1. La Junta Rectora celebrará sesiones ordinarias una vez cada dos meses.

2. Se celebrarán sesiones extraordinarias cuando así lo acuerde el Presidente, por propia iniciativa, o por solicitud de al menos la cuarta parte de los miembros de la Junta.

3. Las sesiones, salvo que el Presidente en la convocatoria, por causa justificada, señale lo contrario, se celebrarán en la sede del Euskaltegi Municipal.

4. La convocatoria de las sesiones ordinarias, junto con el orden del día, la realizará el Presidente, y se cursará exclusivamente a los miembros de la Junta Rectora con una antelación mínima de cuatro días naturales y en el caso de las extraordinarias podrán convocarse con una antelación mínima de 24 horas.

5. Cuando la sesión se convoque a iniciativa de los miembros de la Junta, deberán incluirse en el orden del día los asuntos que propongan quienes tomaron la iniciativa.

**Artículo 13**

1. La válida celebración de las sesiones requerirá, en primera convocatoria, la asistencia de un número de miembros que represente al menos a la mitad más uno de los votos ponderados.

De no alcanzarse el quórum señalado en el párrafo anterior, habrá una segunda convocatoria a los 30 minutos de la hora fijada para la primera convocatoria, siendo bastante en esta ocasión, para la válida celebración de la sesión, la asistencia de un número de miembros que represente cuando menos la tercera parte de los votos ponderados.

2. El Presidente dirige y ordena, a su prudente arbitrio, los debates.

3. Los acuerdos se aprobarán por mayoría simple de los presentes, teniendo en cuenta que existe voto ponderado, en virtud del cual el voto de cada vocal cuenta tantas veces como el número de corporativos que tiene en el Ayuntamiento el grupo político al que representa, excepto en el supuesto previsto en el artículo 23 de los presentes Estatutos, decidiendo los empates el Presidente con su voto de calidad.

4. Sólo podrán adoptarse acuerdos sobre asuntos no incluidos en el orden del día cuando previamente sean declarados de urgencia por acuerdo favorable de al menos la mayoría absoluta de miembros de la Junta.

5. A los efectos de quórum previsto en el apartado 1 de este artículo, así como en lo que se refiere en la mayoría prevista en al apartado 4, no se tendrá en cuenta al Presidente nato.

**Artículo 14**

1. En ausencia del Presidente, presidirá las sesiones el miembro de la Junta en el que aquél hubiera delegado, siendo en todo caso necesaria la presencia del Presidente y del Secretario, o de quienes legalmente les sustituyan, para la válida celebración de las sesiones.

2. La Junta podrá requerir o autorizar la comparecencia de personas o miembros del Organismo autónomo a efectos informativos o de asesoramiento.

**Artículo 15**

1. De cada una de las sesiones se levantará acta, en la cual se hará constar el lugar, día y hora en que comience y finalice la sesión, nombre y apellidos de los asistentes y de los vocales que no asistan, si se celebra en primera o segunda convocatoria, opiniones sintetizadas de los miembros asistentes, si se expresara su voluntad de que fueran recogidas, votaciones que se verifiquen y parte dispositiva de las resoluciones que se adopten.

2. Aktak Lehendakariaren eta Idazkariaren sinadurekin erasoko dira, eta Euskaltegiko Idazkaritzan artxibatuko dira.

**16. artikulua**

Hautespenak egiteko era eta mahaikideek eztabaidetan ezin esku hartu eta botorik ezin eman duten balizkoak Udalaren Araudi organikoan xedaturik dagoenak eraenduko ditu.

V. KAPITULUA

**IDAZKARIA**

**17. artikulua**

1. Erakunde Autonomoaren Idazkaria Euskaltegiaren Zuzendari jarduten duen pertsona izango da.

2. Ondokoak izango dira Idazkariaren eginkizunak:

a) Batza Artezkariaren bileretan hizpidez baina hautespiderik gabe jardutea.

b) Batza Artezkariaren bilkuretako Aztergaien Zerrenda Lehendakariarekin batera prestatzea.

c) Bilkuren akta idaztea eta akta artxibatzeaz arduratzea.

d) Erakunde Autonomoaren administrazio atazak zuzentzea eta, hala denean, Udalaren zerbitzu egokien aholkularitza eskatzea.

e) Zerbitzuaren urteko memoria idaztea eta Batza Artezkariari aurkeztea, onets dezan.

VI. KAPITULUA

**ONDAREA**

**18. artikulua**

1. Erakunde Autonomoaren ondarea Udalak beraren xedeak betetzeko eratxikitzen dizkion ondasunek eta Udal Aurrekontuaren pentzura eskuratzen dituen ondasunek osatuko dute.

2. Erakunde Autonomoa eratzen den unean eratxiki zaizkion ondasunak honakoak dira: Iparragirre etorbideko 78. zenbakian dagoen eraikina, Udal Euskaltegia deritzona, eta eraikin horretan dauden ondasun higikorrak; halaz guztiz, eraikin hori Udalaren titulartasunekoa izango da eta ondasunen inbentarioan erasoko da.

VII. KAPITULUA

**BALIABIDE EKONOMIKOAK**

**19. artikulua**

Erakunde Autonomoak ondoko baliabide hauek izango ditu bere xedeak betetze aldera:

a) Edozein administrazio edo herri erakundek ematen dituen diru-laguntzak.

b) Euskara irakastearen zerbitzugintzari dagozkion tasa edo prezio publikoengatiko sarrerak.

c) Ikuskizun publikoak antolatuz eskuratzen diren sarrerak.

d) Herri erakundeek edo erakunde pribatuek edota pertsona fisiko edo juridikoek egindako edozelako ekarpen ekonomikoak.

e) Leioako Udalak bere urteko aurrekontuaren pentzura ezartzen dituen zenbatekoak.

VIII. KAPITULUA

**AURREKONTUA**

**20. artikulua**

1. Batza Artezkariak urtero onetsiko du Erakunde Autonomoaren gastuen eta sarreren aurrekontua, eta Udalaren Osoko Bilkuraren onespenpean jarriko du.

2. Las actas se autorizarán con la firma del Presidente y del Secretario, y serán archivadas en la Secretaría del Euskaltegi.

**Artículo 16**

La forma de efectuar las votaciones y los supuestos en que los vocales deban abstenerse de participar en los debates y de votar, se regirán por lo que disponga el Reglamento Orgánico del Ayuntamiento.

CAPITULO V

**EL SECRETARIO**

**Artículo 17**

1. Será Secretario del Organismo autónomo quien desempeñase el puesto de Director del Euskaltegi.

2. Serán funciones del Secretario:

a) Asistir a las sesiones de la Junta Rectora con voz, pero sin voto.

b) Colaborar con el Presidente en la preparación del orden del día de las sesiones de la Junta Rectora.

c) Redactar el acta de las sesiones, responsabilizándose de su archivo.

d) Dirigir las tareas administrativas del Organismo autónomo, recabando, en su caso, el asesoramiento de los servicios municipales correspondientes.

e) Redactar la memoria anual del servicio y elevarla a la Junta Rectora para su aprobación.

CAPITULO VI

**PATRIMONIO**

**Artículo 18**

1. El patrimonio del Organismo autónomo estará constituido por los bienes que el Ayuntamiento adscriba al mismo para el cumplimiento de sus fines y por los que aquél adquiere con cargo a su presupuesto.

2. En el momento de constitución del Organismo autónomo, los bienes que se le adscriben son el edificio sito en la Avda. Iparragirre número 78 denominado Euskaltegi Municipal, y los bienes muebles que en el mismo se ubican, si bien, en cuanto al inmueble se refiere, el mismo continuará figurando en el inventario de bienes del Ayuntamiento como de titularidad de éste.

CAPITULO VII

**RECURSOS ECONOMICOS**

**Artículo 19**

El Organismo autónomo tendrá como recursos para el cumplimiento de sus fines:

a) Las subvenciones procedentes de cualquier Administración u Organismo público.

b) Los ingresos procedentes de las tasas o precios públicos correspondientes a la prestación de servicio de enseñanza de euskera.

c) Los ingresos obtenidos con ocasión de la organización de espectáculos públicos.

d) Las aportaciones de cualquier índole procedentes de entidades públicas o privadas y de personas físicas o jurídicas.

e) Las cantidades que el Ayuntamiento de Leioa establezca con cargo a su presupuesto anual.

CAPITULO VIII

**PRESUPUESTO**

**Artículo 20**

1. La Junta Rectora aprobará anualmente el presupuesto de gastos e ingresos del Organismo autónomo y lo someterá a la consideración del Ayuntamiento Pleno.

2. Aurrekontuaren egitura eta aurkezpena erraztasun, argitasun eta eraginkortasunezko irizpideak kontuan harturik prestatuko dira, eta Udalaren aurrekontuaren egiturari doituko zaizkio ahalik eta gehien.

3. Gastuen orrian langileri gastuei aurre egiteko behar diren kredituak bilduko dira, bai eta zerbitzugintza behar bezala burutzeko behar diren ondasun eta materialak eskuratzekoak, instalazioak artatu eta mantentzeko kredituak eta, oro har, Erakunde Autonomoaren xedea betetze aldera aurreikusten diren jarduketei ekiteko behar diren kredituak ere.

4. Sarreren orrian hemeretzigarren artikuluan adierazten diren kontzeptuen aurreikuspen zenbatetsia jasoko da.

5. Aurrekontuaren proiektua Erakunde Autonomoaren Lehendakariak igorriko dio Batza Artezkariari; Lehendakariak Erakunde Autonomoaren Idazkariaren (Udal Euskaltegiaren Zuzendaria) eta Udalaren zerbitzu ekonomikoen laguntza izango du aurrekontua egiteko.

IX. KAPITULUA

**KONTABILITATEA**

**21. artikulua**

1. Erakunde Autonomoaren sarrerak eta gastuak Erakunde Autonomoaren administrazio eta kontu-hartzailetza zerbitzuen bidez kontabilizatuko dira, eta ondoren, Udalaren zerbitzuek hartuko dituzte kontuok, sarrerak eta gastuak Erakunde Autonomoaren aurrekontuan bertan egotziz.

2. Ekitaldi ekonomikoaren amaieran aurrekontuaren urteko balantzea edo likidazio kontua, ekitaldiaren emaitza ekonomikoak adieraziko dituena, onetsiko da, eta Osoko Bilkuraren onespenpean jarriko da.

3. Urteko aurrekontuan maniobra fondo deritzon zenbatekoa sartuko da, frogatu beharreko gastuak ordaintzekoa; Erakunde Autonomoaren Lehendakariak zenbateko hori erabili ahal izango du, ondorik gastuak behar bezala frogatuz. Kopuru hori kontu korronte batean sartuko da eta Udal Euskaltegia izango da kontu horren titularra.

X. KAPITULUA

**ARAUBIDE JURIDIKOA**

**22. artikulua**

Erakunde Autonomoaren gobernu organoen egintzek eta erabakiek Toki Erakundeei dagozkien erreklamazio eta errekurtsoei buruzko baterako araubidea izango dute manuzko; horrenbestez, Udalaren organoei ezin izango zaie gorabidezko errekurtsorik jarri.

**23. artikulua**

Udalak aldarazi egin ahal izango ditu estatutu hauek, aldarazpenak onesteko egin behar diren tramiteak burutu ondorik.

Erakunde Autonomoaren Batza Artezkariarena izan daiteke aldarazpenaren ekimena, eta horretarako batzakideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da; halaber, ekimena Udalarena izan daiteke, zuzenean, aurretiaz Batza Artezkariari jakinarazi ondoren.

XI. KAPITULUA

**UDALAREN BABESA**

**24. artikulua**

Udalak Erakunde Autonomoa babesteko dituen ahalmenak, funtsean, Erakundeak aurrekontu, kontu, ordenantza, araudi eta, oro har, estatutu hauen 10. artikuluan beren beregi aurreikusten diren gai guztiei buruz hartzen dituen erabakiak behin betiko onetsiz egikaritzen dira.

2. La estructura y presentación del presupuesto se hará atendiendo a criterios de simplicidad, claridad y eficacia, ajustándose, en cuanto fuera posible, a la estructura del presupuesto del Ayuntamiento.

3. El estado de gastos comprenderá los créditos precisos para atender los gastos de personal, adquisición de bienes y efectos necesarios para el normal desenvolvimiento del servicio, y para la conservación y el mantenimiento de las instalaciones y, en general, para afrontar las actuaciones que se prevea realizar en orden a cumplir el objeto del Organismo autónomo.

4. El estado de ingresos expresará la previsión cuantificada de los conceptos señalados en el artículo 19.

5. El proyecto de presupuesto lo elevará a la Junta Rectora el Presidente del Organismo autónomo, el cual, para su elaboración, contará con la colaboración del Secretario del Organismo autónomo (Director del Euskaltegi Municipal) y la de los servicios económicos municipales.

CAPITULO IX

**CONTABILIDAD**

**Artículo 21**

1. Los ingresos y gastos del Organismo autónomo serán intervenidos y contabilizados a través de los servicios de administración e intervención del Organismo autónomo y, posteriormente, por los servicios municipales, imputándose los mismos en el propio presupuesto del Organismo autónomo.

2. Al final del ejercicio económico se aprobará un balance anual o cuenta de liquidación del presupuesto, que expresará el resultado económico del mismo, sometiéndose el mismo a la aprobación del Ayuntamiento Pleno.

3. En el presupuesto anual se incluirá una cantidad, bajo la denominación de fondo de maniobra, que tendrá el carácter de gastos a justificar, y de la cual podrá disponer el Presidente del Organismo autónomo, justificando posteriormente, en debida forma, los gastos realizados. Dicha cantidad se ingresará en una cuenta corriente cuyo titular será el Euskaltegi Municipal

CAPITULO X

**REGIMEN JURIDICO**

**Artículo 22**

Los actos y acuerdos de los órganos de gobierno del Organismo autónomo estarán sometidos al régimen común de reclamaciones y recursos correspondientes a las Entidades locales, no existiendo por tanto recurso de alzada ante los órganos del Ayuntamiento.

**Artículo 23**

El Ayuntamiento podrá, previa realización de los trámites requeridos para su aprobación, modificar los presentes Estatutos.

La iniciativa de la modificación podría ser acordada por la Junta Rectora del Organismo autónomo, con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros, o bien directamente por el Ayuntamiento previa notificación a la Junta Rectora.

CAPITULO XI

**TUTELA DEL AYUNTAMIENTO**

**Artículo 24**

Las facultades tutelares del Ayuntamiento sobre el Organismo autónomo se ejercen, fundamentalmente, mediante la aprobación definitiva de los acuerdos que éste adopte sobre presupuestos, cuentas, ordenanzas, reglamentos y, en general, en todos aquellos asuntos para los que así se prevé expresamente en el artículo 10 de estos Estatutos.

**25. artikulua**

Udalaren Osoko Bilkurak eten egin ahal izango ditu Erakunde Autonomoaren erabakiak, baldin eta haren eskumenekoak ez direla ulertzen bada edo legeak nabarmenki urratzen badituzte.

XII. KAPITULUA

**IRAUPENA ETA DESEGITEA**

**26. artikulua**

Euskararen Erakunde Autonomoa epegabeki eratu da, eta Udalak beren beregi erabakita baino ezin desegin izango da.

Erakundea deseginez gero, Udala izango da haren oinordeko orokorra.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako estatutu hauetan aurreikusirik ez dagoenari dagokionez, Toki Erakundeei aplika dakizkiekeen legezko arauak izango dira manuzko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Udalaren Araudi organikoa onesten ez den artean, estatutu hauetan horretaz egiten diren aipamenak 2586/1986ko Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Antolamendu, Jardupide eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko Araudiaren gainekoak direla ulertuko da.

AZKEN XEDAPENA

Honako estatutu hauek berorien testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu beharreko hamabost egun igaro ondoren jarriko dira indarrean.

Leioan, 1999ko irailaren 3an.—Alkatea, Karmelo Sainz de la Maza Arrola

(6.204 zk.)

•

I R A G A R K I A

1961.eko azaroaren 30.eko Iharduera Nekagarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiko 30.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, jakinerazten da ondoren aipatutako enpresak udal baimena eskatu duela honako iharduera honetarako:

*Eskatzailea:* Industrias Juno, S. A.
*Iharduera mota:* Pintura eta apainketa-gaien salmenta
*Helbidea:* Amaia, etorb. 18.

Herritarrei jakinerazten zaie, instalazioak kaltea ekarriko diola uste duenak, Udaletxeko bulegoetan dagozkion arrazoibideak idatziz aurkeztu ditzan, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialeari argitaratu eta 15 eguneko epe barruan.

Leioan, 1999ko irailaren 1ean.—Alkatea, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola

(6.177 zk.)

•

## Galdakaoko Udala

IRAGARPENA

Alkate-Udalburuak, 1999ko irailaren 9ko 2.699/99 zkidun. Alkate Dekretuz,UE-CR-28 Betearazpen-Esparruan burutuko diren udal frontoiaren eraikitze-lanak, jardunbide irekiz, lehiaketa bidezko adjudikazio eraz eta izapidetza arruntaz, kontratatatzea baimendu zuen.

Toki-Jaurpide arloan indarrean dauden legezko Xedapenen Testu Birbatua onesten duen Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzaz-

**Artículo 25**

El Pleno Municipal podrá suspender los actos y acuerdos del Organismo autónomo cuando se considere que recaen sobre asuntos que no son de su competencia o cuando constituyan infracción manifiesta de las leyes.

CAPITULO XII

**DURACION Y DISOLUCION**

**Artículo 26**

El Organismo autónomo Euskararen Erakundea se constituye por tiempo indefinido y sólo mediante acuerdo expreso municipal podrá disolverse.

En caso de disolución, el Ayuntamiento le sucederá universalmente.

DISPOSICION ADICIONAL

En lo no previsto en los presentes estatutos se estará a lo dispuesto en las normas legales y reglamentarias de aplicación a las Entidades locales.

DISPOSICION TRANSITORIA

En tanto no se apruebe el Reglamento Orgánico Municipal las referencias del mismo que se hacen en estos Estatutos se entenderán hechas al Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

DISPOSICION FINAL

Los presentes Estatutos entrarán en vigor una vez transcurridos 15 días contados a partir del siguiente al de la publicación de su texto íntegro en el «Boletín Oficial de Bizlaia».

Leioa, a 3 de septiembre de 1999.—El Alcalde, Karmelo Sainz de la Maza Arrola

(Núm. 6.204)

•

A N U N C I O

A efectos del artículo 30.2.a) del vigente Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, de 30 de noviembre de 1961 y Ley 3/98, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, se hace saber que la empresa que a continuación se indica, ha solicitado licencia municipal para las siguientes actividades:

*Solicitante:* Industrias Juno, S. A.
*Actividad:* Venta de pintura y artículos de decoración.
*Dirección:* Avda. Amaia, 18.

Lo que se hace público para quienes de algún modo se consideren afectados por la citada instalación, puedan hacer por escrito las reclamaciones pertinentes, durante el plazo de 15 días hábiles en las oficina del Ayuntamiento, a partir el siguiente al de la publicación de este anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Leioa, a 1 de septiembre de 1999.—El Alcalde, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola

(Núm. 6.177)

•

## Ayuntamiento de Galdakao

ANUNCIO

El Alcalde - Presidente por Decreto de Alcaldía núm. 2.699/99 de 9 de septiembre, autorizó la contratación de las obras del frontón municipal en la Unidad de Ejecución UE-CR-28, por el procedimiento abierto, la forma de adjudicación por concurso y tramitación ordinaria.

En cumplimiento de los artículos 122 y siguientes del R.D. Legislativo 781/1986 de 18 de abril por el que se aprueba el Texto Refun-